

hondo-hondotik

Mikel Insausti Muguruza

(Merkataritza eta Inbertsio Koordinatzailea Europar Politika Bulegoan)

Banka etikoa: Euskal Herrian ere?

Gaur egungo gizartean dirua gauza askoren adierazpen eta sinboloa da. Shakespeareren «Izan edo ez izan» oihu poetikoa, gaurko gizarte materialista honetan «Eduki edo ez eduki» bihurtzen ari da. Horrela, ez da batere harritzekoa mundu mailako populazio estatistiketan dutenen eta ez dutenen arteko bereizketa bortitza aurkitzea, bai herri pobreen eta aberatsen artean zein horien baitan. Orokorrean, dirua eta hura lortzeko gaitasuna daude bereizketa horren muinean.

Baina zein da diruaren funtzioa gure gizartean? Ekonomialari baten erantzuna bikoitza izango litzateke: gaurko ongizatea bermatzea zerbitzu (heziketa, kultura, bidaiak...) eta ondasunak (janaria, etxea, arropa...) erosteko medio delarik —dirua gastatuz beraz— edo etorkizunerako ongizatea ahalbidetzea —dirua aurreztu eta inbertitu—. Momentu bakoitzean diruarekin zer egiten den —gastatu edo aurreztu— faktore askoren menpean dago. Baina aurrezteko logikaren muinean ideia nagusi bat dago: gaurko ongizatea lortzeko errekurtsoak kontsumitu beharrean aurreztu egiten baditugu eta aktibitate produktibo batean inbertitu, biderkatu egingo dira denborarekin, eta etorkizunean disfrutatu ahal izango dugun ongizatea gaur uko egin diogunarena baino handiagoa izango da.

Ekonomi liburu-testuetan aurrekoa da irakasten den teoria. Baina egin beharreko galdera hurrengo da: dirua al da gizarte honetan ongizatea lortzeko bide bakarra? Edo beste modu batean jarrita: ongizatearen iturria gizarte batean diruarekin guztiz erlazionatuta al dago? Zorionez, aurreko bi galdera horien erantzuna ezezkia da. Ongizatea esparru indibiduala / famili artekoa zein gizarteartekoa baita. Pertsona edota familia batek bere ongizatea handitu dezake adibidez kultura ekintza gehiagotan parte hartuz, etxe handiago batean biziz edo udako oporrak etxetik kanpo pasatuz, bakoitzaren gustuen arabera. Baina familia zein esparru indibidualetik kanpo dauden gizarte faktore askok ere baldintzatuko dute gizarte horretan bizi direnen ongizate maila.

Ongizate estatuaren sorrerak administrazioaren zeregitea gizarte-mailako ongizate minimo bat hornitzea ekarri zuen. Ongizate estatuaren kontratu sozialaren arabera, estatuak hartu zuen bere gainean egungo belaunaldiak ongizatea bermatzea etorkizunean ere. Horretarako, gaurko belaunaldiak sortutako aberastasunaren zati handi bat estatuak bereganatu eta horrekin ondasun publikoak eskaini eta pentsio sistema sendoak ezarri zituen.

Baina egungo sistema neoliberalak hankaz gora jartzen ari da aurreko eskema hori. Gastu eta pentsio sistema publikoak merkatuaren aldarean sakrifikatzen ari dira munduan zehar, iraganeko herexek izango balira bezala. Eta indar eta aktore pribatuak bere gain hartzen ari dira antzina esparru publikoaren baitan zeuden funtzio asko. Horrela, aurrean aipatutako gizarte ongiza-

tearen determinante diren horietako askotan (gizarte babesa eta kohesioa, ingurugiroaren kalitatea, osasuna...) influentzia nabarmenagoa dute enpresek, eta horien behar finantzarioak hornitzen dituzten bitartekariak ere —banku, aurrezki kutxa, aseguru konpainiak, eta abar—.

Hiritarren aurrezkiak, dirua azken finean, finantza bitartekariak kudeatzen dute geroz eta gehiago. Pentsio sistema eta aseguru pribatuak, burtsan eginiko inbertsioak, aurrezki kutxa eta bankuetako gordailuak eta akzioak dira, besteak beste, aurrezki horiek hartzen dituzten forma ezberdinak. Garai batean banku eta aurrezki kutxen funtzioa gizartean honela deskribatu zitekeen: aurrezteko aukera egin dutenen dirua proiektu produktiboak martxan jartzeko edo areagotzeko errekurtsoak behar dituztenen eskuetan jartzea, interes baten truke. Baina definizio hori motz gelditu da dagoeneko. Finantza sektorearen papera gizartean harantzago doa gaurko egunean, eta gizartearen ongizate orokorrearekin guztiz lotuta dago. Ez ahaztu finantza bitartekariak darabilten diru bolumenaren zati nabarmen bat langile eta hiritar xeheen aurrezki eta pentsio planez osatuta dagoela.

Orduan zergatik aurrezkien eta ongizate sozialaren arteko lotura hau? Ba aurreztutako diru hori ekonomian, eta beraz gizartean, nola inbertitzen den eragin zuenak dituelako gaurko eta etorkizuneko belaunaldientzako. Adibidez, enpresa eta ekimen lokalak inbertitzen ari al da diru hori, ala epe laburreko inbertsio espekulatibotatik munduko edozein merkatutik? Ingurugiroa errespetatzen duten negozio eta enpresetan, ala kutsadura eta suntsidura ekologikoak eragiten dituzten enpresa eta sektoreetan? Atzerrian giza eskubideak bortxatzeko erabiltzen diren armak ekoizten dituzten enpresetan inbertitzen ari al dira gure aurrezkiak? Edota nahiz eta mozkin izugarriak lortu, langileak kaleratzen dituzten enpresetan?

Aurreko galdera horiek funtsezko gai batera garamatzate. Esate baterako, finantza bitartekariak gizartearen ongizatea hobetu edo murriztuko duten inbertsioen artean bereizteko irizpide etikorik erabili beharko litzuketela ala ez, hain zuzen. Eta hortxe sortzen da koxka. Hiritarrok estatuarekin duten itxaropen arrunt bat, azken honek hartuko dituen erabakiak —horien barne hiritarren errekurtsoak nola inbertitu— hiritar guztion ongizaterako izango direlako da. Estatu eta sektore publikoak irizpide etiko eta demokratiko batzuei dago lotuta, tokian tokiko eta momentuan momentuko kontra-

tu sozialaren arabera. Baina sektore pribatua, eta bereziki finantza sektorea, irizpide etiko horiei lotuta al dago? Egon beharko luke agian?

INBERTSIO IRIZPIDEAK

Hiritarrok aurreztutako dirua irizpide ekologiko eta sozialekin inbertitu dadin ziurtatu behar da

Bi erantzun posible daude: alde batetik, finantza sektoreak ez du inongo obligaziorik etikoki jokatzeko esparrulegalaren barruan egoteaz gain. Bankuen zeregin zuzena akziodunentzako aberastasuna sortzea da, aurrezki kutxen kasuan gizarte ekintzak bultzatzea helburu bat bada ere. Baina, bestalde, sektore publikoarekiko bezala, jokabide etiko baten itxaropena dago gizartean sektore pribatuarengan ere.

Europako herrialde gehienetan banku eta aurrezki kutxak erantzukizun zuzena hartzen hasiak dira beraien aktibitatearen dimentsio etikoa bermatzeko. Horrela, beraien egitekoa aldatu dute gizartearen ongizatea, ingurugiroaren kalitatea eta kultura bultzatzeko. Horretarako, finantza produktu berriak sortu dituzte —fondoak, adibidez— enpresa txiki eta ertainak laguntzeko, ongizate soziala handituko duten ekintzak bultzatzeko, energi iturri berriztagarriak sustatzeko eta ingurugiroaren kontserbazioa bermatzeko, besteak beste. Gutxienik, banku eta aurrezki kutxa askok konpromisoa hartu dute gizarte-helburu horien kontra doazen proiektu, mailegu eta

merkatal operazioak ez sustatzeko, irizpide etikoak garatu eta aplikatuz horretarako. Eta, era berean, finantza instituzio berriak sortu dira Europako herrialde askotan proiektu etikoak bakarrik finantzatzeko aurreztaileen diruarekin —banku etikoak hain zuzen—.

Garaia da hiritarrok gure aurrezkiek etorkizunean sortu dezaketen etekin ekonomikoez gain, gizarte mailan duten eraginekin kezkatzen hasteko. Gure dirua banku eta aurrezki kutxek nola inbertitzen duten funtsezkoa da gizartearen gaurko eta biharko ongizaterako. Hiritarrok aurreztutako dirua irizpide ekologiko eta sozialekin inbertitu dadin ziurtatzea halaberharrezkoa da, eta praktikan jarri beharko litzateke lehenbailehen. Horretarako ez dago Pragaraino joan beharrik, etxe ondoran baititugu gure aurrezkiak inbertitzen dituzten banku, aurrezki kutxa eta aseguru konpainiak. Harritzekoa bada ere, Euskal Herrian eta estatuan banka etikoaren inguruko debate sakona ez da hasi ere egin. Aurreztaileen eskuotan dago erantzukizuna beraz gure dirua etikoki inbertitu dadin ziurtatzeko. Banku eta aurrezki kutxek aurreztaileen dirua non eta zein helburu eta gizarte-eraginekin inbertitzen duten inguruko informazioa eskaintzeko betebeharrak etikoak dute, hori bakarrik ez bada ere.

FINANTZA BITARTEKOAK

Darabilten diruaren zati nabarmen bat langile eta hiritar xeheen aurrezki eta pentsio planez osatuta dago

hirusta

Aitziber Pz de Karkamo

Ez da trenik niretzat

Gauero igarotzen naiz autobus geltoki zahar horretatik.

Ordu txikietan ez da errepidean barrena abiatzeko prest dagoen autobusik, ez eta zain dagoen estudianterik edota bidaiatzeaz nekatuta ez dagoen ameslaririk. Ordu horietan istorioz beterik eta ametsez hutsik itzuliko diren maletak ez dira izkintetan pilatzen, ez dakite itzuliko diren ere; ordu txikietan ezin da entzun bozgorailutik datorren ahots gogaikarriaren abisu axolagaberik. Beranduegi da kioskoko leihoak zabaltzeko, goizegi ere ez delako agian.

Gauero igarotzen naiz autobus geltoki zaharretik eta han dira ezer ez espero eta zerbaiten zain ere ez dauden agure horiek. Orduak eman dituzte itxaroten, baina berandu egin zaie, eta oroitzuz, ihes egin dien trenari begiratzen diote akaso, urruntzen doan heinean orain arteko konbinazioak okerrak izan balira bezala. Autobus geltoki zahar horretan arrotz sentitzen diren agureak besterik ez dira. Ispiluari begiratu nahi ez dionaren gisa gurutzatzen dituzte euren begiradak, errukiak eman dezakeen ziztadaren beldur.

Jesarrita dagoen eserlekua bezain estatikoa bihurtu den agureak egunkari zahar bateko orri zimurtuak ditu esku artean. Ez daki noizkoa izan daitekeen, eta ez du jakin gura ere, dagoeneko denbora-pasek zentzu gutxi baitute eta horoskopopak sorrarazten zion jakinmina ere ez zaio jadanik erakargarria suertatzen. Aurrean duen erlojuari so egin dio denboraren kontzientzia berreskuratu nahian, orratzen norabideari segitzeko indarrik inoiz izan ez duela eta horretan hasteko beranduegi dela jakin arren. Beste urtebete igaro dela konturatu da orduan. Beste urtebete berarentzat trenik ez duen autobus geltoki zahar horretako denbora makinan. Esku artean dituen orri zimurtuei so egin die eta hasperen egin du, zaharkitutako albisteen izenburuak bihar ere titular izango direlako.